

Merkatuaren segmentazioa:

Proiektu hau erabilgarri egingo zaie orokorrean gazteei eta lan munduan dabilen jendeari, izan ere, denoi gertatu zaigu noizbait ikastolara edo bilera garrantzitsu batera joan ezinik gelditu garela gaixo gaudelako edo lesio bat jasan dugulako. Honek, gehienbat, asko mugatzen dion aniztasun funtzional bat duen pertsona bati oso erabilgarria egingo zaio, erosotasuna bermatuko diolako. Esaterako, bi hanka galdu badituzu eta ikastolara edo lanera joatea pisutsua egiten bazaizu, produktu hau zuretzat da!